

## PRESTAKUNTZA PLANA 2018/2019

### PRESTAKUNTZA JARDUERARAKO DEIALDIA

**Izenburua:**

**Hezkuntza programazioa Scratch erabiliz**

**Modalitatea:** Mintegia

**Etapak:** Lehen eta Bigarren Hezkuntza

**Parte-hartzaileak:** Nafarroako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleak

**Deitzailea:** Iruñeko zonaldeko Hezkuntza Teknologiako aholkulariak.  
Hezkuntzako Teknologiak Txertatu eta Ustiatzeko Atala.

**Justifikazioa:**

Scratch bezalako tresnak erabiliz softwarea programatzeak, teknologia sortuz teknologiaren beraren ulermena errazten du. Programa erraz bat (Scratch) ezagutzuz, ikaslegoari programazioan lehen urratsak emateko aukera zabaltzen zaio. Scratchek istorio interaktiboak, jokoak eta animazioak grafikoki programatzeko balio du. Horrez gain, arrazoiketa sistematikoa eta sormena indartzen ditu eta elkarlana ahalbidetzen du.

[Scratch](#), MIT Media Lab-en Lifelong Kindergarten Taldearen proiektu bat da. Doako tresna da eta on-line zein bere mahaigaineko aplikazioaren bertsioan erabil daiteke. Hezkuntza desberdinetan eskaintzen da (gaztelania eta euskara barne). Jada sortuak dauden aplikazio anitzen sustengua du, nahieran egokitu daitezkeenak, hala nola baliabideak eta tutorialak. Berriki (2019ko urtarrila) 3.0. bertsiora eguneratu da.

Programazioaren hastapenak Lehen Hezkuntzako laugarren eta bosgarren ikasturteetan garrantzi berezia hartzen du, Programazioa bera [curriculumean jaso](#) baitago. Hala ere, Scratchek ikasmaita horietaz gain, aukera askoz ere zabalagoak eskaintzen ditu.

**Helburuak:**

- Scratch inguruneak eskaintzen dituen aukera didaktikoak ezagutu.
- Robotikan alfabetatu, aurre-ezagutzak izatea beharrezkoa izan gabe.
- Robotikako proiektu zeharkakoen bitartez programazio informatikoaren hastapena.
- Robotika ikasi, batetik robotika ezagutzeko helburu izanik eta, bestetik, beste eduki batzuen ikasketarako bitarteko gisa.

**Edukiak:**

- Scratch ingurunea, ezaugarri orokorrak.

- Aldagaiak eta elkarreraginerako modu desberdinak.
- Agindu sekuentziak, begiztak eta baldintzak.
- Ikasgelan erabiltzeko estrategiak.
- Irakaskuntza konstruktibista baten barruan, programazio errazarekin proiektuak eginez, egoera didaktikoen diseinua.

### **Metodologia:**

Mintegiak bertaratu beharreko bina orduko bost saio izanen ditu eta norberak egin beharreko lau orduz osatuko da. Esperientzian oinarrituko metodologia erabiliko da, teoriatik abiatuz.

Mintegia osatzeko, bertaratu beharreko saioez gain, norberak egin beharreko 4 orduko lana bete beharko da, aplikazio errazen bat sortuz. Aplikazio hori proposamen didaktiko labur batekin batera bere ikuskapenerako aurkeztu egin beharko da.

**Hizlaria:** Javier Tellechea Jiménez, Hezkuntza-robotikan esperientzia handia duen irakaslea.

### **Arduradunak:**

Garikoitz Iñigo, Iruñeko ILZ-ko Hezkuntza Teknologien aholkularia.  
848431224  
[informatica.cap.pamplona@educacion.navarra.es](mailto:informatica.cap.pamplona@educacion.navarra.es)

Patxiku Ganboa, Iruñeko ILZ-ko Hezkuntza Teknologien aholkularia.  
848431226.  
[informatica2.cap.pamplona@educacion.navarra.es](mailto:informatica2.cap.pamplona@educacion.navarra.es)

**Tokia:** José Vila eraikina. Taxoare kalea, 14. Iruñea.

**Datak:** 2019ko otsailaren 21, 26 eta 28 eta martxoaren 12 eta 14a.

**Ordutegia:** 17:30etik - 19:30era

**Iraupena:** 14 ordu

**Plaza kopurua:** 20

**Parte-hartzaileen gutxieneko kopurua:** 8

### **Izena emateko epea:**

Izena emateko azken eguna 2019ko otsailaren 17a da. Esteka honen bitartez egin behar da:  
<http://formacionprofesorado.educacion.navarra.es/web/eu/inscripciones-3/>

### **Hautatzeko irizpideak:**

- Lehen Hezkuntzako irakasleak.
- Izena ematearen ordena.

**Hizkuntza:** Gaztelania

## Oharrak:

- Aurrerantzean prestakuntza ikastaroekin zerikusia duten abisu eta jakinarazpen guztiak Hezkuntzako Sare Publikoko irakasleek duten PNTE kontu ofizialera bidaliko dira ([erabiltzailea@educacion.navarra.es](mailto:erabiltzailea@educacion.navarra.es)). Ikastetxe pribatu eta itunduetako irakasleei abisu eta jakinarazpenak Educan ezarria duten helbide elektronikora iritsiko zaizkie.
  - Izena emateko epea amaituta, ahalik eta lasterren argitaratuko da jarduera honetarako onartuen zerrenda, honako web-orri honetan: <http://formacionprofesorado.educacion.navarra.es/web/eu/onartuen-zerrenda/>
  - Ziurtagirien kudeaketarekin sortzen diren galderak ILZ-ko idazkaritzan erantzunen dira; Telef: 848 424775, 848 424776, 848 426232; [secretaria.cap.pamplona@educacion.navarra.es](mailto:secretaria.cap.pamplona@educacion.navarra.es).
  - Irakasle bat onartu badute jarduera egiteko eta ezin badu egin, deialdian agertzen den jardueraren arduradunari esan beharko dio posta elektronikoko baten bitartez, baja emateko jarduera hasi baino lehen. Bestela zehapen-prozesua abiaraziko da, eta irakaslea ezin izanen da 5 hilabetez sartu izena emateko plataforman; ondorioz, galduko du Nafarroako Hezkuntza Departamentuak antolatzen dituen prestakuntza jardueretan izena emateko aukera. Zehapen horrek ez du inor salbuetsiko ikasturtean prestakuntzako 35 ordu egiteko beharkizuna betetzetik.
- 
- Urrutiko prestakuntzako ikastaroei dagokienez, ikastaroa hasten den egunetik 15 eguneko epean irakasleak ez badu "Nahitaezko lana: aurkezpena" izeneko lana entregatzen, automatikoki baztertuko da ikastarotik. Baztertuz gero, gorago aipatutako zehapen-prozesu bera aplikatuko zaio.
  - Prestakuntza jarduneko irakasleek soilik egin dezakete eta haiei baino ez zaie ziurtatuko; salbuespena amatasun, adopzio edo harrera-lizentzia duten irakasleak dira, abuztuaren 23ko 71/2017 Foru Dekretuan ezarri bezala. Aldi baterako ezintasun egoeran egonez gero, ezinezkoa da prestakuntzara joatea.
  - Ziurtagiria eskuratzeko saio presentzialen %85era joan beharko da eta saio bakoitzaren sinaduren orrian bolaluma ezabaezinarekin sinatu. Ez da kontuan hartuko sinatu ez den saiorik; hau da, ez da onartuko bestelako bertaratze-ziurtagiririk. Prestakuntzaren diseinuan lan praktiko bat egitea sartuta badago, bertaratzeaz gain, nahitaezkoa izanen da lanak aurkeztea ziurtagiria lortzeko.